



## **SEVILLATIK EUSKAL HERRIRA**

Urriaren 28an Espainiako Sevilla II espetxean deportaturik aurkitzen diren EPPKren kideak gose greba mugababeen abiatu ziren bertan bizi duten egoera larriari aurre egiteko. EPPK-ak 13 kideoi babes osoa erakustearekin batera, euskal jendarteari jakinarazten dio azaroaren 28an gose greba amaitutzat eman dutela.

Sevillako egoera ez da atzo goizekoa. Espetxeko isolamenduan kokatzea ez ezik, zigor errejimen iraunkorra aplikatzen baitiete. Patiorduetan elkarrekin atera beharrean bananduta irtetea behartzen dituzte, etengabeko miaketak jasan behar dituzte eta osasun eskubidea ez zaie bermatzen. Honi, funtzionario talde baten jazarpena bereziki oldarkorra dela gehitu behar zaio.

Egoera jasaezina zaielarik sartu dira borrokan hain zuzen ere, oinarrizko eta gutxieneko bizibaldintza duinak lortzeko. Beste preso batzuek ere borrokaldian parte hartu dute haiei ere eragiten dielako egoerak. Isolamendutik irtetea lehentasuna da, kidego guztiarekin gero Euskal Herrirako bidean jartzeko.

Espetxealdi luzea daramaten kideak ditugu Sevillan, eskarmentu handikoak. Momentuz egoera konpontzeko modurik izan ez bada ere, konponbiderako atea irekia dago, espetxe zuzendaritzatik orain arte mantendu den jokabide arduragabe eta zekena aldatuz gero: espetxe Zuzendari Rafael Durban Herrero eta Jose Luis Castejon Gonzalez Zuzendari ordeak izan dutena esaterako.

Kideek burutu duten protestaldiak egoeraren larritasuna ezagutaraztea ahalbidetu du. Beste espetxetan elkartasun ekimenak burutzeaz gain, kalean eta instituziotan oiartzuna eta ardura zabaltzea lortu da. Orain, herriarekin batera jarraituko dugu egoerari aurre egiten, konponbide bati begira presioa arindu eta beste molde batez ekinez.

Borrokaldiarekiko elkartasuna adierazteko egin diren ekimen eta salaketa oro bihotzez eskertzen du EPPK-ak Sevillako kideon izenean. Aldi berean, egoera aldatu arte kanpoan eragiten jarraitzeko deialdia egiten dugu.

Horrelako egoerak gehiago ez gertatzeko dagozkigun oinarrizko eskubideak errespeta daitezen aldarrikatzen dugu. Sakabanaketarekin amaitzea, deportazio espetxetatik Euskal Herriratzea ezinbesteko eta lehentasuneko urratsa da.

Isolamendurik ez! Euskal presoak Euskal Herrira orain!

Amnistia-autodeterminazioa!

**EPPK**

**2013ko azaroa, Euskal Herria bihotzean**

**Borrokan itxialdian eta hilabeteko baraualdia burutu duten kideak:**

- Iker Agirre
- Jabi Agirre
- Gurutz Agirresarobe
- Koldo Aparizio
- Iñaki Arakama
- Asier Arzalluz
- Juan Mari Etxebarri
- Garikoitz Etxeberria
- Jesus Goikoetxea
- Manuel Gonzalez
- Juan Lorenzo Lasa Mltxelena
- Roberto Lebrero
- Urtzi Paul Larrea